GARA-GIRA: Ipar Euskal Herriko euskararen eta hizkeren doinuak.

ZERGATIK ETA ZER EGITEKO ?

Euskarak berezko ditu kolore eta doinu aniztasuna, eskualde bakoitzeko ezaugarri eta mintzairak. Euskal Herriko Ahotsak proiektuak 20 urte daramatza adineko euskaldunak grabatzen eta euren hizkera zein ahozko ondarea online sareratzen, herritar guztientzat eskuragarri jarriz. Ahalegina egin arren, beste alderdi askotan bezala, kasu honetan ere desoreka sortu da Hego/Ipar Euskal Herriaren artean (beti bezala, lehenengoaren alde) eta mugaz gaindiko deialdi hau profitatu nahi dugu egoera irauli eta Ipar-Hegoak lotzeko. Badihardugu (Guipuzkoa) eta Zabalik (Nafarroa Beherea) elkarteen lankidetzari esker, zubi-lan hori eginen dugu. Testigantzak jaso, etiketatu eta transkribatu eginen dira. Helburua da, elkarlana eta ezagutza partekatzea, sinergiak lortzea, eta, horri esker, Ipar Euskal Herriko mintzairen bideo-pasarteak online jarri eta Euskal Herri osoko Ahozko Corpus Digitalerako ekarpenak egitea.

NORENTZAT ?

20 urteko esperientziak emandako datuak dira hartzaile potentzialen profil hauek:

- Nerabe eta gazteak. Transmisioaren alorrean izan dugun eten hori gainditzeko tresna gisa.
- Publiko orokorra. Hizkuntzan eta ahozko ondarean interesa daukatenak.
- Irakasleak eta ikerlariak. Euskara irakasle eta ikasleak, hizkuntzalariak, historialariak, antropologoak...

PROIEKTUAREN ABIARAZLEA ?

Badihardugu deba ibarreko euskera alkartia

PARTAIDEA ?

Zabalik Elkartea

NOIZ ?

Honako hauek dira proiektuak izango dituen faseak:

1.- Proiektuaren oinarrietatik abiatuz, deialdira aurkezten diren bi elkarteen arteko koordinazio bilerak, xehetasunen azterketa egiteko. Elkarte bakoitzak proiektuari eskaintzen dion zatia (baliabideak, metodologia, erremintak...) dokumentatuko du eta beste elkartearen esku jarriko.

2.- Bi eskatzaileen artean koordinazio-bilerak eginen dira gutxieneko maiztasun batekin (urtean 4-6 bitarte), proiektuaren egoera, aurrerapenak eta hurrengo urratsak aztertzeko. Bilera horiek presentzialak zein telematikoak izango dira.

3.- Testigantzen bilketa eta aukeraketa. Landuko den materiala zein den adostuko dute 2 elkarteek, horretarako, materialaren azterketa eginen delarik.

4.- Aukeratutako materialaren katalogazioa eta etiketatzea, aurrez zehaztu eta adostutako metodologiari jarraiki. Metodologia hori partekatzea da proiektuaren oinarrietako bat, Badiharduguk erabili dugun metodologia eta lan-dinamika Zabalik elkarteari transmitituz.

5.- Transkribatzea. 150 pasarte aukeratuko dira eta transkribatuko, irizpide zehatz batzuk jarraikiz. Transkripzioak lekuan lekuko hizkera ezagutzen duten adituek eginen dituzte, eskualde bakoitzeko hizkuntzaren ezaugarriak ezagutzea ezinbesteko baita lanaren urrats honetarako.

6.- Bideo-pasarteen edizioa eta sareratzea. Bideo-pasarteak editatu, formatu jakinean gorde eta online sareratuko dira.

7.- Landutako metodologiaren eta material guztiaren laburpena izango den txostena idatziko dugu, prozesu osoa dokumentatuz, hurrengo lankidetzetan ere baliagarri izan dadin. Proiektuaren aurreneko 6 hilabeteetan (2023. udazkenean hasita) 1-3 faseak abiatuko dira. 2024an gainontzekoak hasi eta burutuko dira. 2024ko udazkenerako lanak burututa izango ditugu.

AURREKONTUA ?

19 000 €